

ETENGABEKO ARRETAKE GUNEAREN (EAG) ZERBITZU-ESKAINNTZA

EAGn, erreferentziatzko osasun-zentroan hitzordua hartzeko zain egon ezin diren eta premiazko ospitale-arretarik behar ez duten gaixotasunen osasun-arretaren beharra balioesten da, eta tratamendu egokia ematen da.

Hauek dira EAGn eskaintzen diren zerbitzuak:

- Honako **sintoma arin** hauentzako arreta: katarroa, sukarra, arnasteko zailtasuna, mina, beherakoa, goragalea, gernu-sintomak, zauriak, erredurak, hozkadak, ziztadak, sudurreko odoljariora, traumatismoak, zorabioak, bertigoak eta erreakzio alergikoak.
- **Injektagarriak eta/edo txerto** ez-atzeragarriak (antitetanikoa) eta **urgentziatzko kontrazepzioa** (biharamuneko pilula) ematea.
- **Zundak edo bendajeak** bezalako gailuak jarri, zaindu eta kentzea, eta **gorputz arrotzak atera** (larruazala, belarriak, begiak, etab.).
- Oinarrizko proba diagnostikoak:
 - **Elektrokardiogramak** (EKG) bihotzeko arazoaren hasierako ebaluaziorako.
 - **Glukosa kapilarraren** neurketa.
 - Infekzioak, haurdunaldiak eta abar detektatzeko **test azkarrak**.
 - **Bizi-konstanteen** monitorizazioa (bihotz-maiztasuna, tentsio arteriala eta oxigeno-saturazioa).
- **Sendagaiak agintzea**: beharrezkoa izanez gero, EAGko langileek sendagaiak errezetatu eta premiazko kontsultak ebatzi ahal izango dituzte sendagaiak uztartzeko gaietan.
- **Pediatriako arreta**: 6 urtetik gorako pazienteen patologia akutuen ebaluazioa, erreferentziatzko pediatriarekin osasun-zentroan hitzordua izan arte itxaron ezin dutenena.
- **Ospitaleko Larrialdi Zerbitzura edo beste espezialitate batera bideratzea**, pazientearen egoerak hala eskatzen badu.